

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2018.**

---

Joan den urriaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Kontu Orokorraren fiskalizazio-txostena, 2018ko ekitaldiari buruzkoa, Kontsortzioaren beraren kontuek eta bere merkataritzako sozietate den Gipuzkoako Urak SAREN kontuek osatzen dutena.

HKEEK **aldeko iritzia** plazaratu du 2018ko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, nahiz adierazi duen ondasunen erabileraren lagapena dela-eta, Kontsortzioarekin izenpetutako emakida-erabakitik eratorritako konpromisoek eragindako obligazioak islatzeko Sozietateak erregistratu dituen horniduren kalkuluan ez direla aintzat hartu eguneratze finantzarioaren ondorioz sor litezkeen doikuntzak eta ez dagoela horien eraginaren estimaziorik.

Bai Kontsortzioak, bai Sozietateak zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautu duen lege-arautekia; alabaina, Sozietateak 2,5 milioi euroren gastuak gauzatu ditu dagokion kontratazio-espeditentia izapidetu gabe, zeinak prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeen. Gainera, aldi baterako 4 lanposturen iragarkiek ez zuten informatu proba aldi bat igaro ondoren, urtebeteko epean kontratuak mugagabe izango zirela. Horrez gain, 10 kontratazioaren iragarkietan Gipuzkoan bizi izateko baldintza ezarri zen.

Bestalde, HKEEK ezin egiaztatu izan du 12 lanpostu betetzeko bideratutako hautaketa-prozesua, zeina langileak hautatzeko enpresa baten bitartez gauzatu baitzen.